

DATORRENA

«Almorzar ravioles con la vieja los domingos» IÑAKI SOTO > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Polizia jantzian kamuflatuta datorkigu ultraeskuina RAMON SOLA > 9

2019ko abuztuaren 17a | VIII. urtea • 633. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



XABI OTERO, IRAGANARI BEHA...

... ORAINA HOBETO EZAGUTZEKO. DATORREN URRIAN HERNANIN IZANGO DEN ATLANTIAR KONGRESUAZ MINTZATU ZAIGU JAUZARREAKO ZUZENDARIA. MUNDU OSOKO HAINBAT ADITUK EUSKALDUNEN IRAGANAREN GAINEAN JARDUNGO DUTE. > 18 Jagoba MANTEROLA | FOKU



Askapenako brigadistak, Brasilen eta Grezian, etsipenaren eta errepresioaren lekuko 04

Egoera zaurgarrian dauden adinekoei mesede egiten die ariketa fisikoak 10

Hamar, zortzi, sei... bakar bat ere gehiegi da 14

Elkarrizketa: Xabi Otero, Atlantiar kongresuaz 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** «Almorzar ravioles con la vieja los domingos»
- 08 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Lurralde abuztuan
- 09 **Ramon Sola:** Polizia jantzian kamuflatuta datorkigu ultraeskuina
- 13 **EXPRAI**
- 15 **Koldo Sagasti:** CAF, historiako orri beltzenak idazten
- 15 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Baldarrak gara, hala nahi dugunean
- 16 **Beñat Gaztelumendi:** Galernak
- 17 **Nerea Ibarguren Salegi:** Inoren esku
- 22 **Amaia Urrejola:** Haurtzaroko sexualitatea



{ datorrena } Iñaki Soto

«Almorzar ravioles con la vieja los domingos»

A rgentinar umoretsuek txiste bat kontatzen dute beren buruaz. Jainkoa mundua sortzen ari zenean, ondasunak nahiko modu orekatuan banatzen hasi zen. Toki batean akuifero ikaragarriak jartzen zituen, beste batean abereak banatzen zituen, beste batean hondartza miresgarriak kokatzen zituen, halakori lur emankorrek ematen zizkion... Munduko toki jakin batera heldu zen arte. Han, esandako guztiak eta beste ha maika ondasun jarri zituen, denak batera: mendiak, haranak, lur emankorrek eta barazkiak landatzeko eguraldi egokia, jateko eta lanerako animaliak, hondartza luzeak eta urmael lasaiak... Laguntzaile zuenak harrituta begiratu eta galdetu zion, «zergatik jartzen duzu hemen denetik eta sobera?». Jainkoak imintzioa egin eta erantzun zion: «Lasai, hemen argentinarrak kokatuko ditugu!».

Txisteak profezia gisa funtzionatzen du, Argentinako egunerokotasun politikoa-ren hondoko zarata bihurtzeraino. Beti dago hor. Argentinarrekin desfaserako gaitasuna beti dagoelako presente. Berdin politikan, ekonomian, artean edo futbolean. Niri, oro har, miresgarriak iruditzen zaizkit.

Hauteskundeetan, nola ez, gaitasun horiek ere ikusgai izan dira. Adibidez, peronismoak bere burua berrasmatzeko duen gaitasuna azpimarragarria da. Aurretik askorentzat suizida izan arren, Cristina Fernandezek jokaldia borobila izan dela argi geratu da. Alberto Fernandezekin batera txartela osatuz, justizialismoa berreraiki eta Macriri 15 puntuko aldea ateratu diote urriko hauteskunderi begira. Askoren ustez abantaila gaindiezina da. Jakina, aurretik Argentinari buruz esandakoetan sinisten ez duen jendea izango da. Nolanahi ere, benetan zaila da.

Peronismoaren aldetik, beste bi apunte. Eduardo Duhalde eta batez ere Nestor Kirchnerrekin Ekonomia ministro izan zen Roberto Lavagnak hirugarren postua

lortu du, bozen %8,2. Polarizazioa hain handia izanda, ibilbide hain luzea eta paradoxikoa duen politikari batentzat emaitza oso onak iruditzen zaizkit. Kontrako aldean, urteetan justizialismoaren bozeramaile izan den Miguel Angel Pichettoen bando aldaketa porrota izan da. Macriekin batera joateak biak kaltetu dituela dirudi. Eskuineko peronismoaren ezintasunen adibide ona da.

Argentinaz harago, nire ustez, hauteskundeok peronismoaren bilakaeratik dira interesgarriak. Izan ere, politika tradizionala krisian zegoela esaten zutenen aurrean, mugimendu honen moduko bilakaerak gero eta komunagoak izango dira, han eta hemen. Beste noizbait aipatu dut: peronismoa ulertezina dela gezur hutsa da, besteak beste espainiar “pentsalariek” zabalduetako gezurra; are, argentinarrak ere sutan jartzen

Lorenzo Miguel metalurgiako liderrak peronismoa igandetan amarekin ravioliak jatea dela zioen («almorzar ravioles con la vieja los domingos»). Txomin Iturbek Argalari eman zion erantzunaz oroitu naiz

dituen gezurra da. [Nahi izanez gero, hona hemen gehiago jakiteko iturri bat: Jose Pablo Feinmannen “Peronismo. Filosofía política de una obstinación argentina”, <https://bit.ly/2WPa94L>].

Lorenzo Miguel metalurgiako liderrak peronismoa igandetan amarekin ravioliak jatea dela zioen («almorzar ravioles con la vieja los domingos»). Argalak Txomin Iturberi berarentzat sozialismoa zer zen galdetu zionean honek eman zion erantzuna gogorarazi dit: igandean alondora zuria jantzi, familiarekin mezetara joan eta ondoren herriko plazan umeekin pilotan jokatzea. [Bide batez, udarako irakurgai ezin hobea: Mertxe Aizpurua-ren “Argala. Pensamiento en acción” liburu bikaina]. •

ASKAPENAKO BRIGADAK (I)

Greziar etsipenaren eta Brasilen errepresioaren lekuko izan dira brigadistak

NAZIOARTEA / Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Askapenako brigadistek Greziako hainbat erakunde eta borroka ezagutu dituzte udan honetan, baina, batez ere, herrialdeko auzo, herri eta taldeetan hedatu den etsipenaren lekukoa izan dira. Hori bai, etsipen hori gaitzitzeko ahaleginen berri ere izan dute. «Etsipenaren aurkako borroka inork irabazten badu, herri mugimenduek irabaziko dute», nabarmendu dute Greziako brigadako kideek beraien kronikan. Izan ere, Greziako azken hauteskundeetan islatu zen moduan, Europako Batasunetik eta Nazioarteko Diru Funtsetik ezarritako murrizketen eta memorandumaren zein Syriza gidatutako Gobernuak eragindako desengainuaren ondorioz, borroka ezberdinak ahuldu egin dira.

Euskal Herriko brigadistek KOE erakunde komunistaren eskutik egin zuten bidaia. Hasiera batean KOEk Syriza koalizioan parte hartu bazuen ere, 2015ean utzi egi zuen Alexis Tsipras lehen ministroak, egindako erreferendumeko emaitzaren kontra, herstura neurri gogorak onartu zituen. Ildo horretan, KOEko militante historikoei brigadistek azaldu zieten, «historia modernoan behintzat, garaian garaiko indar inperialisten menpe izan da beti Grezia: Otomandar Inperioa, naziak, britainiarrak, yankiek sostengatutako diktadura...».

Brigadistek gaineratzen dute, «gaur egun ere, bestelako menpekotasun egoera bat» bizi du Greziak: «azken urteetan aplikatu diren erreskateen (memorandumak) eta horien ondoriozko neurrien bidez, estatu, multinazional eta banketxe

Askapenaren eskutik udan honetan hainbat herritako borroka ezagutzen ari diren brigadistak hasi dira lehen kronikak bidaltzen. Aurten, Greziar herri mugimenduak beste etsai bat aurkitu duela egiaztatu ahal izan dute internazionalistok: etsipena. Aldi berean, Bolsonaroren Brasilen errepresioaren gorakadaren lekuko izan dira.

boteretsuak jabetu dira Greziako azpiegitura estrategikoez. Gainera, esku hartze zuzena dute parlamentuan eta gainerrako erakundeetan hartzen diren erabakietan. Greziaren burujabetza hutsaren hurrengo da. Are gehiago, arriskua dago Greziako Estatua eta lurralde-

tasuna bera desagiteko, aipatu ditugun interes horiek eta Turkiako politika espantsionista dela medio».

Hiru auzo ezagutu dituzte brigadistek Atenasen. Lehena, Kokinia langile auzoa, XX. mendeko 20ko hamarkadan Turkiako kostaldetik kanpora-

tutako greziarrek sorturikoa eta nazien okupazioaren aurkako erresistentzia indartsua agertu zuena. Elkarren arteko laguntzari esker aurrera egin zuten inongo egiturarik ez zegoen eremu batean. Horren ondorioz, komunitate indartsuko auzoa bilakatu zen.

Brigadistek ezagututako bigarren auzoa Exarchia izan zen. Bertan, oraindik ere diktadura militarren aurkako unibertsitate politeknikoko ikasleek borroka urtero gogoratzen dute. Joera libertarioa hainbat borroka eta ekimenen gotorleku, bertan bestelako prozesuak ere ematen ari direla azaldu dute Askapenako brigadistek: «Alde batetik, arazo handia dago drogarekin auzoan, eta bertako mugimenduen arteko istilu iturri izaten ari da horren

Euskal Herriko brigadistak Tiganitis Heraklioneko kirol klubeko arduradunekin; kirolaren bidez komunitatea sortzea dute helburu. ASKAPENA



aurrean hartu beharreko jarra. Bestetik, munduko beste hainbat hiri handitako auzoetan gertatzen ari den moduan, gentrifikazio prozesu larria ari da gertatzen: alokairuen prezioak igotzen ari dira, auzoa taberna eta kafe modernoak betetzen ari da, polizia berriro sartzen hasi da...».

Hirugarrenik, Galatsi auzoa ezagutu zuten brigadistek. Bertan bizi diren maila ertaineko eta baxuko herritarren bizi-maila nabarmen okertu da, Grezia osoan gertatu bezala, krisiaren ondorioz. Biztanleen %50 pobrezian bizi dira, eta, %33, pobrezia-atalasearen azpitik. Brigadistek azaldu dutenez, estrategia integral bat abiatu du mugimendu antolatuak auzoan, hiru ildo nagusiren bitartez: «Lehena, auzo osoaren topagune bilakatu nahi duen gune politiko-soziala, elkarren arteko harremanak sustatu eta auzoko arazoak identifikatzeko. Bigarrena, proposamen munizipalista bat, auzoa eraldatzeko plan integral batekin. Hirugarrena, kontsumo-kooperatiba bat, egoera okerreanean dauden premiazko beharrei erantzun eta auzotarren arteko harreman sozialak eraldatzeko».

Hain zuzen ere, auzotarren arteko harremanak eraldatzeko lehentasun bihurtu da «kapitalismoaren eta azken urteetako krisiak sortutako gabezia larrien eraginez ematen ari den deshumanizazioari aurre egiteko. Etsipena da nagusi, nork bere burua salbatzea beste aukerarik ez du ikusten, joera indibidualistak eta etsaitasuna zabaldu dira... Horregatik, kolektibotasunean oinarritutako harremanak bultzatu nahi dituzte, egoera irauliko duten borroka martxan jartzeko asmoz».



Askapenako brigadistek Kretako hainbat ekimen ezagutu dituzte.
ASKAPENA

Greziak uneotan bizi duen giroa horrela laburbildu dute brigadistek: «Herri mugimendua asko apaldu da azken urteotan, etsipena da nagusi, baina badaude etsipen hori indar iraultzaile bihurtzeko lanean ari diren mugimenduak».

Mugimendu horietako batzuk Kreta uhartean ezagutu dituzte brigadistek. Besteak beste, Tiganitis Heraklioneako kluba, kirolaren bidez komunitatea sortzea helburu duena. «2015ean sortu zuten kluba, batez ere mugimendu anarkistatik heldutako hainbat lagunek. Haien helburu nagusiak futbol modernoari aurre egitea, komunitatea eraikitzea eta futbolarik jendea mugiarazteko duen ahalmena baliatzea dira. Oinarri nagusitzat antifaxismoa, antiarrazismoa eta antisexismoa dituzte», azaldu dute brigadistek.

Kretan bestelako arazoak ere ezagutu zituzten, turistifikazioak eta NATOren base mili-

tarrak sortutakoak. Kokapen estrategikoa izateaz gain, «basearen zeregina gerran dabil-tzan militarrek hornitzea da», eta, aldi berean, errefuxiatuak kontrolatzea, piratak geldiaraztea eta multinazionalen ontziak babestea. «Azken batean, helburua itsasoan botere inperialista nagusien interesak defendatzea da», salatu dute Askapenako kideek.


Aipatutakoez gain, gerran dabil-tzan militarrek atseden garaian daudenean sortzen dituzten arazoak aipatu dituzte brigadistek (gehiegikeriak, emakumeen kontrako etengabeko erasoak...), Greziak eta Ameriketako Estatu Batuek izenpetutako akordio baten ondorioz inpunitate osoz egiten dituztenak, militarrok ezin baitituzte Grezian epaitu. Hala eta guztiz ere, brigadistek aitor-tu dute badaudela basearen aldeko ahotsak ere, «Turkiaren joera espantsionistatik babes-ten omen dituelako eta Kretan

dirua uzten dutelako militarrek», diru hori herritarren poltsikoetara iritsi ez arren.

Brigadistek azaldu dutenez, garai batean militar estatubatuarren aurkako oposizioa indartsua zen arren, egun presentzia hori normalizatu egin da. «Borroka honetan ere etsipena da nagusi: asko kontra egonik ere, ez dute uste ezer egin daitekeenik, eta horren erantzuleak, neurri handi batean, alderdi politikoak (batez ere ezkertiarrek) omen dira, kontrako diskurtsoa zabaldu arren, finean base militarra babesten dutelako».

TESALONIKAKO BORROKAK

Greziako iparraldean, Tesaloni-kan, desindustrializazioaren ondorioak ezagutu dituzte Askapenako kideek. Langile klase indartsu eta borrokalaria zuen hirian langabezia asko handitu da agintariek turistifikazioa bultzatu duten bitartean. «Etxebizitza turistikoaren eragi-



nez, errentak asko garestitu dira, eta, batez ere gazteek, erdi-gunetik alde egin behar izan dute azken urteetan. Aldi berean, bizi-kalitatea okertuz joan da, zerbitzu publikoen kalitatea okertu egin da...».

Brigadistek nabarmendu duten bezala, «beste hiri askotan dituzten arazo antzekoak» dituzte Tesalonikan ere: «Agintariak turistak erakarri nahian ari dira, eta, bitartean, biztanleak ezin bizirik. Hala ere, badu hiriak beste ezaugarri bat: Balkanetan dago, gune estrategikoan. Ondorioz, inperialismoari lotutako gatazkak ere izaten dituzte», gaineratu dute. Askapenako kideek hiru adibide ezagutu dituzte: uraren pribatizazioaren aurkako borroka, meatzeen gatazka eta Viome enpresako langileek hartutako lantegia.

Uraren kudeaketa pribatizatzeke saiakera geratzeko herri mugimenduak 2008an egin-dako borrokari esker ez dute enpresa publiko osoa pribatizatu. «Ur-kudeaketaren pribatizazio saiakera pribatizazio orokor baten testuinguruan ulertu behar da: hamaika enpresa publiko pribatizatuz joan dira, memorandumez memorandum. Multinazionalen esku geratu dira», azaldu dute.

«Pinocheten Txileren atzetik, Grezian izan da kanpoko kapitalaren esku hartzerik

handiena enpresa publikoetan. Pribatizazio horren ondorioz, uraren kasuan esaterako, prezioa igo eta kalitatea jaitsi da», gaineratu dute.

Baina, kasu honetan ere, indartsu zen borroka moteldu egin da eta Tesalonikan ere etsipena nagusi da. «Ikusita-koak ikusita, jendeak uste du ezin direla gauzak aldatu, baina sindikatukoek borrokan jarraitu nahi dute, ez baitute beste aukerarik ikusten».

MEATZEEN GATAZKA

Greziako ekialdeko Kaltzidikako meatzeetako langileek ere borrokari bizirik eustea dute erronka. Gobernuak meatzeak Kanadako enpresa bati saldu ondoren, komunitateak borrokan hasi ziren egitasmo berrien kontra, batez ere «ustiapen basatiak» ingurumenearagindako kalteagatik.

Brigadistek azaldu dutenez, 2011tik 2013ra 400 pertsona

Ezkerrean, NATOk Kretako uhartean duen base militarreko soldaduak; militarrek sortutako arazoak bertatik bertara ezagutu dituzte brigadistek. Eskuinean, brigadista bat Brasilen, Lurrik Gabekoen Mugimenduko kideek okupatutako gune batean. ASKAPENA

«Herri mugimendua asko apaldu da azken urteotan Grezian, etsipena da nagusi, baina badaude etsipen hori indar iraultzaile bihurtzeko lanean ari diren mugimenduak»

«Pinocheten Txileren atzetik, Grezian izan da kanpoko kapitalaren esku hartzerik handiena enpresa publikoetan. Uraren kasuan, prezioa igo eta kalitatea jaitsi egin da»

auzipetu zituzten –oraindik 100 epaiketa zain daude–, eta, errepresioaren ondorioz, egun jada «ez dute itxaropenik, epaiketek ito egin dituzte, eta etorkizuna beltz ikusten dute». Egoera okertu eta kalteak azaleratu ahala jendeak zerbait egiteko beharra sentitzea espero dute orain, herriak husten ari diren bitartean.

VIOME: LANTEGIAK LANGILEENTZAT

Azkenik, Viome fabrika okupatuaren esperientzia ezagutu zuten brigadistek Grezian. 2011n, jabeek fabrika abandonatu ostean, langileek elkartasun deia egin, elkartasun sarea sortu, eta, azkenean, 2013an, kooperatiba bat eratu zuten.

Arazorik ez da falta: Estatuak pabiloiak saldu nahi ditu eta langileei zaila zaie ekoizpena barne merkatuan saltzea. «Mundu osoko fabrika okupatuekin batera lan egiten dute, eta tarteka topaketak antolatzen dituzte. Langileen erabakitasunagatik, izan duten babesagatik, bai solidarioena eta bai familiena, eta ahal izan duten saltsa guztietan sartu direlako, beste borroketan inplikatu direlako, lortu dute zazpi urtez irautea».

BRASILEN, ERREPRESIOA GORA

Eta Grezian herri mugimenduak etsipenari aurre egingiten dion bitartean, Bolsona-

roren Brasilera joandako brigadistek beste mehatxu bat ezagutu dute: errepresioaren gorakada.

Brigadistak iristean, ikusi zuten MST Lurrik Gabekoen Mugimenduaren eta Via Campesinaren banderak haga erdira jarrita zeudela Florestan Fernandez eskolan. Bezperan MSTko militante bat hil zutela kontatu zieten, «auto batekin nahita harrapatuta uraren aldeko protesta batean parte hartzen ari zela».

Brasilera joandako Askapeneko kideek egoera larria deskribatu dute. «Ordu batzuk nahikoa izan dira Brasilera zein une historiko gordinen iritsi garen ulertzeko. Eraldaketa sozialaren aldeko mugimenduen aurkako errepresioa handitzen ari da Jair Bolsonarok Brasilgo presidentetza hartu zuenetik, bereziki MSTren aurkakoa».

«Azken hilketa Valinhos hirian gertatu zen, Marielle Vive kanpamentuko kideak ur-hornidura eskatzeko manifestazio bat egiten ari zirela. Bizilagun batek autoz harrapatu zuen Luiz Ferreira 72 urteko MSTko kidea, eta, ondoren, hilketaren egileak berak nahita harrapatu zuela aitortu zuen. Bolsonaroren gorroto mezuek horrelako ekintzak ugaritzea ekarri dutela azaldu digute, edonork sentitzen duela horrelako sarraski

bat egiteko zilegitasuna», kon-
tatu dute brigadistek.

Askapenako brigadak, Luiz
Ferreiraren hilketa salatze-
ko MSTk deitutako protestal-
dian parte hartu zuen Marie-
lle Vive kanpamentua ezagu-
tu baino lehen. Duela urte eta
erdi Brasilen hildako ekintzai-
le feministaren omenez izen-
datutako kanpamentuan
1.000 familia baina gehiago
daude kanpatuta, «lurraren al-
deko borrokan euren egoera
legeztatu eta kokaleku bat lor-
tuko duten ziurtasun osoz».

Brigadarekin batera beste
hiru autobus bete jende ere jo-
an zen kanpamentura, eta de-
nentzako bazkaria zuten prest:
«Ehunka lagun geunden ila-
ran, eta denentzat zuten arroz,
babarrun eta haragi platerka-
da. Hasi gara ulertzen MSTren
antolakuntza maila noraino
iristen den».

Florestan Fernandez Eskola
Nazionala MST mugimenduak
koordinatzen duen eskola po-
litikoa da. Sao Paulo estatuan
dago eta, Askapenako briga-
distek azaldu bezala, 2005ean
inauguratu zuten, «latifundis-
ten eta kapitalaren aurka, eta
mundu justuago, demokrati-
koago eta parekideago baten
alde. Mundu osoko langileen
eskola internazionalista da, so-
zialismoaren eta herrien inde-
pendentziaren aldeko borroka
ardatz duena».

«Iritsi garen unetik, eskola-
ren tamainak eta antolakuntza
mailak harritu gaitu. Eskola
MSTk formaziori ematen dion
garrantziaren erakusle argia
da: ezinbestekotzat jotzen du-
te militanteen heziketa politi-
koa benetako eraldaketa sozia-
la lortzeko, eta argi daukate
iraultza hori militanteen eta
mugimenduaren oinarrietan
daudenengandik etorriko de-
la», azaldu dute brigadistek.

1.200 lagun lan militante-
ari esker auzolanean eraikita-
ko eskola da, Brasil bertako
zein beste herrialde batzuetako
zenbait artista ezagunek
emandako euren lanen gaine-
ko egile eskubideen laguntza-
rekin sortutakoa: Sebastiao
Salgadoren argazkiak, Jose Sa-
ramagoren testuak, Chico
Buarquek musika... Eskola
erreferente da Latinoamerikan
zein mundu osoan. «MSTko
kideek kudeatzen badute ere,
kontinente osoko mugimen-
du iraultzaileetako militante-
ek jasotzen dituzte bertan
formakuntza eskolak. El Sal-
vador, Argentina, Kuba, Vene-
zuela, Hego Afrika, Maroko,
Bangladesh eta beste hainbat
herrialdeetako lagunak ezagu-
tu ditugu eskolan emandako
egunetan», kontatu dute.

«Eraldaketa sozialaren aldeko
borrokan diharduten pertsona
militanteak sortzea eta ekin-
tzaileoi borroka aurrera era-
mateko tresnak eskaintzea da

Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduak erabateko garrantzia ematen dio heziketari: militanteen heziketa politikoa ezinbestekotzat dute benetako eraldaketa soziala lortzeko

«Eskoletan landutako metodologia pedagogiko bera jartzen dute praktikan Lurrik Gabekoen Mugimenduko kideek okupatutako kanpamentuetan eta kokalekuetan»

helburua. Bestetik, beren he-
rrialdeetan formatzaileak
izango diren pertsonak forma-
tzeko ikastaroak eskaintzen
dituzte», gaineratu dute.

Eskolak metodologia peda-
gogiko propioa du. «Metodo-
logia hori bera jartzen dute
praktikan MSTko kideek Brasi-
len zehar okupatutako kanpa-
mentu zein kokalekuetan».

Eskolako pedagogiaren bai-
tan, borroka berak forma-
tzen ditu pertsonak. Martxak,
protestak, lurren okupazioak,
formazio bide nagusia dira:

«Borrokan hazi eta hezten da
pertsona». Askapenako briga-
distek egiaztatu dutenez, «ez
da ikasketa teorikoa bakarrik,
bizitza militantean egin behar
dituzten lan ezberdinak egiten
dituzte. Eskola hau da MST
mugimenduaren bihotza, mu-
gimenduaren bizitza eskola
bertan hasten delako».

Agroekologia ere ezagutu
dute brigadistek Bahia esta-
tuan MSTren eskutik. «Elika-
gai osasuntsuen ekoizpena
ahalbidetzen du agroekologiak
bizitzaren defentsan. Biodi-
bertsitatea kudeatzean datza,
bere ikuspegi zabalenean, hau
da, dimentsio sozial, politiko,
ideologiko, ekonomiko, ekolo-
giko, energetiko eta kulturalak
lantzen ditu», azaldu dute.

Eta eredu hori garatzeko eta
zabaltzeko hainbat eskola sortu
ditu MSTk. Heziketa teknikoa
eta politikoa eskaintzen dute,
gero ikasleek euren komunita-
teko eskoletan praktikan jarri-
ko dutena.

Askapenako brigadak
Brasilgo Lurrik
Gabekoen
Mugimenduaren
heziketa eskola bertatik
bertara ezagutu du.
ASKAPENA





Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa


Lurraldea abuztuan

Abuztua, ia-ia munduaren erdiarentzako, etenaldiaren eta geldialdiaren deklarazio-hilabetea da. Ematen du lurralde batzuk itxi egiten direla, taberna eta denda askotako atarietan irakurgai diren karteltxoek dioten bezala, “Oporrak direla-eta itxita gaude, barkatu eragozpenak”. Zeinen arraroa den horrelako lurralde itxietara bidaiatzea abuztuan; gerrate edo izurrite batek biztanleria akabatu izan balu bezala gelditzen dira herriak, hilik eta isilpean. Barnealdeko herri eta hiriak biztanlez eta aktibitatez husten diren bitartean, kostaldeko lurraldeek *overbooking* izugarria pairatzen dute, pil-pilean daude. Iparraldekoek hegoaldea okupatzen dute. Hondartzen bilaketaren eromena da lurraldean desorekak sortzen dituen, kabitu ezinik egoteraino, eguzkiaren –eta azal beltzarana erakustearen– kulturaren eraginpean. Urtean zehar hutsik izan diren etxe asko okupatuak izateko garaia, horrela prestatu ditugulako lurraldeak eta etxebizitza-erakin parkea.

Itsas lurraldeen inbasioaz aparte, biztanleria ordezkape-na gertatzen da beste leku batzuetan, bertakoak joan eta kanpokoak etorri, jatorri anitzeko biztanleria nomadak populazio berezi bat osatu arte. Benetan biztanleria trukatuta gertatuko balitz –zu Bostonera eta ni Kalifornia-ra–, ekonomia zirkularrean oinarriturikoa bizitegi aldaketa bat bezala planteatuaz, bestelako kontakizuna litzateke abuztukoa. Baina kapitalismoak oparitu digu mugitzeko

askatasuna, eta langileriak botere hori praktikatu nahi du aisialdi garaian. Horregatik, abuztuan gertatzen diren desplazamendu ororen marraketa mapara eramaterik balego, lurraldeak zirriborratuko genituzke. Eta hobe ez jakin eta ez neurtu zenbateko aire kutsadura eta hondakin kopuru eragiten dion lurraldeari merezitako deskantsu tarte honek...

Izan ere, nola ez oparitu deskantsu unerik, lanak agortzen gaituenean, gorputza nekatu, hustu eta etsitu arte. Abuztuak garbituko gaituen desioarekin planifikatzen dugu, denbora libratzen dugunean plazerean murgiltzeko eta disfrutatzeko espazioa erabakitzen dugunean. Abuztuak emango digu aspertzeko espazioa eta denbora, baldin eta gure buruari baimentzen badiogu. Bizi-erritmo eroa eramaten dugu gainontzeko hilabeteetan, eta abuztuko mugimenduek plazeraren bilaketa amaigabea dute helburu, etxetik ateratzeak hutsune bat beteko balu bezala. Desplazamenduak eta distantziak gure gorputzak sendatuko ditu, abuztura arte gaixotzen egon garelako, egunetik egunera, hilabetez hilabete. Eta lurraldearen antolamendu-sistema eta ekonomia eskutik emanak dira desplazatzeko boterea eman digutelako, baina bizi-erritmoak ahituak uzten gaitu aisialdi-ereduaren gaineko gogo-eta egiteko. Eta datorren urtean, protagonista eta gidoi berdinarekin, abuztuko eszenak errepikatuko dira. •



Ilustrazioa: Ula IRURETAGOIENA

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Polizia jantzian kamuflatuta datorkigu ultraeskuina

Marijaiarekin batera ehunka eta ehunka polizia helduko dira gaur Bilbora. Harro esan du Itziar Urtasun zinegotziak: iaz baino %20 handiagoa da aurtengo polizia kopurua, eta duela bi urte baino %90 handiagoa. Indarkeria matxistaren aurka egiteko beharra jarri du arrazoitzat (edo aitzakia-tzat?). Izan ere, egindako adierazpenetan ez du aipatu nahi izan duela bi aste eskas Etxebarria parkean sei gizonen artean neska bat bortxatu zutela, inongo poliziarik ohartu gabe. Ez da Bilboko ezaugarria, jakina (eta tamalez, oso tamalez). Donostiako Aste Nagusian, jendez lepo zeuden tokietan gertatu dira sexu erasoak azken bi urteotan, iaz Zurriolako diskofestaren ondoan, aurtan Flamenkan. Iruñeko bortxaketa aski ezaguna Gaztelu plaza-tatik 300 metro eskasera jazo zen, eta uztailaren 6ko gauean. Ez, guztiok hori nahiago genuke dudarik gabe, baina emakumeen aurkako sarraski horrekin amaitzeko giltza ez du Poliziak, borroka askoz zabalago eta zailagoa izan beharko da.

Gaur zortzi, auskalo zenbat armadun, kolore guztietakoak, bilduko dira kilometro gutxi batzuen bueltan, G7 taldea arrazoi eta aldi berean aitzakia dela. Izan ere, guztiz justifikaezina da Estefania Beltran de Herediak iragarritakoa: 4.000 ertzain inguru G7aren zerbitzura, Irunen gotortuta antza baina itxuraz muga zeharkatu eta mundu osoko telebistetan agertzeko irrikaz. Sailburuari batean eta bestean emandako elkarrizketetan beti galdera berak entzun ditut: herritarren eskubideak babesteko egongo omen da bertan Ertzaintza. Baina, Iñigo Cabacas gogora ekarri beharrik gabe, abendutik hona arrazoi politikoak direla medio euskal herritarrek jasandako hiru ekintza bortitzenak Poliziak berak egin ditu; Bilboko Anneri masailezurra apurtu diote, Biarritzeko Lolari masailezurra eta bi hortz, eta Baionako Antoineri eskua galarazi. Horrelakorik berriz gertatzeko arrisku nabaria ez al da trafiko afera guztiak baino lazgarriagoa?

Beldurrez betetako aro honetan erraz du Poliziak aurrera egitea. Eta horretan ari dira, kontzienteki, herritar askorentzat uniformeak ikusteak plazebo-efektua dakarrela jabetuta. Juan Maria Aburto beste profil batekin heldu zen alkatetzara, baina, Clint Eastwooden plantaren faltan, Iñaki Azkunaren hitz-jario harroputz antzua bereganatu du. Erne sindikatuaren ustez, gutxi dira Irunera bidalitako 4.000 ertzain horiek, bejondeiela! Urtasun zinegotziak mespretxuz erantzun die Bilboko konpartsei, «segurtasuna ez dela negoziagarria» adieraziz. Beltran de Herediak Ficobako ekitaldiak ere sartu ditu Ertzaintzaren agendan, bertan “segurtasun publikoari” begira inolako eginbeharrik ez duela jakina izan arren. Lapurdin agertoki ederra aurkitu dute Christophe Castanerrek eta Fernando Grande-Marlaskak, Parisko zein

Bilbotik Biarritz-Irunera eta bueltan, polizia ereduaren inguruko eztabaida premiazkoa zenean, atzera egiteko bultzaka ditugu berriz, edo borra-kolpeka eta pilotakadaka

Madrilgo Barne ministroek, beren propaganda ariketarako. Bistan da, puztuta daude sekurokrata guztiak, eta axolagabe-edo herritarrak. Seinale nabarmena aipaturiko Annerena da; aurpegia foamezko pilotakada batekin txikitu ondoren etxera isuna helarazteko puztuta egon behar du gero Ertzaintzak.

Hauteskundeetako emaitzak eskuetan, ultraeskui-nak ez duela Euskal Herrian ordezkari-tzarik lortu oso aipatua izan zen apiril-maiatzeko zikloan. Baina, aldi berean, nabaria da ultraeskuineko zenbait joera abia-dura handiz indartzen ari direla gurean, bereziki Poliziaren aldekoak (beste kontu bat da azkenean horrek Voxen hautetsontzia ez, EAJrena betetzen duela). Polizia ereduaren gaineko eztabaidari heltzeko garaian ginelu uste genuenean, atzera egiteko bultzaka ditugu berriz, borra-kolpeka eta pilotakadaka ez bada. •

ADINEKOAK ETA ZAURGARRIAK

Adinagatik edota minbiziagatik makal daudenei mesede egiten die ariketa fisikoak

 JENDARTEA / Amagoia Mujika Telleria

Ariketa fisikoaren onurak hitzetik hortzera dabiltzan arren, bada hortik aparte utzi ohi dugun biztanleria: egoera zaugarrian dauden adinekoak. Horiei, normalean, atsedena agintzen zaie. Ikerketa batek ondorioztatu duenez, pertsonalizatutako ariketa fisikoarekin erorketak murrizten dira, gaitasun funtzionalak hobetu eta hilkortasuna gutxitu.

Bada adinagatik edo gaixotasunagatik makalduta dagoenari atsedena aholkatzeko joera. Ahalik eta gutxien mugitu, hobeto. Baina, mesedegarria ote da benetan joera hori? Zer-nolako eragina izan dezake arike-

ta fisikoak egoera zaugarrian daudenengan? Zalantza horri segika osatu du Haritz Arrietak, UPV/EHUko ikertzaileak, bere doktorego tesia. «Helburu nagusia izan da ariketa fisikoko programa baten eraginkortasuna aztertzea bi biztanleria zaugarritan. Horietako bat hirugarren adi-

Gipuzkoako adinekoen hamar egoitzatan pertsonalizatutako ariketa fisikoko saioak antolatu dituzte eta emaitzak oso positiboak izan dira.
GAUR8

neko egoitzetako pertsonak izan dira. Eta, bestea, Bordeleko Unibertsitatearekin egindako elkarlan baten bitartez, minbizia daukaten hirugarren adinekoak. Horiekin ariketa fisikoko beste programa baten eraginkortasuna aztertu dugu», zehaztu du Arrietak. Ariketa fisikoak hauskortasunean, gaitasun funtzionalean eta funtzio kognitiboan duen eragina aztertu dute beraz. Izan ere, zaugarritasun egoeratan maiz ez da ariketa fisikoa bultzatzen beldurragatik edota ezjakintasunagatik. «Askotan ez dakigu zer, nola eta zenbat egin. Oso ikerketa gutxi daude. Ariketa fisikoaren onurak aztertzen dituzten gero eta ikerketa gehiago daude, baina biztanleria zaugarrien kasuan daukan inpaktua





oso-oso gutxi ikertu da. Gure helburua, bi ikerketa horien bitartez, aurrerapauso bat ematea izan da».

Hirugarren adinean, eta bereziki egoera zaurgarrian dauden kasuan, duela gutxira arte joera garbia izan da: atsedena, lasaitasuna eta erreku-peratzen saiatzea. Arrietaren ustez, «akaso erortzeko beldurragatik gertatzen da, onurak ez direlako garbi ikusten... Baina ideia horri pixkanaka buelta ematen ari gara eta atsedeen hori ariketa fisikoarekin tartekatzen. Ariketa fisikoaren onurak posible direla ikusten ari gara. Badirudi gaztea zaren bitartean garbi ikusten dela ariketa fisikoaren onura. Baina adin batetik aurrera, hobe dela atsedeen hartzea. Uste dut orokorrean ideia horri buelta ematen ari dela gizartea, atsedeen luze horrek kalteak dakartzalako».

BI ENTSEGU KLINIKO

Ikerketa horretan bi entsegu kliniko burutu dira: lehena, Gipuzkoako adinekoen egoitzetan, eta, bigarrena, minbizia zuten eta beren etxean bizi ziren hirugarren adinekoekin.

«Parte hartzaile guztiek irizpide zehatz batzuk betetzen

zituzten eta denek jaso dute entsegu klinikoan parte hartzeko gonbidapena. Behin gonbidapena onartuta, bi taldetan banatu genituen: kontrol taldea eta talde esperimentalak. Kontrol taldean zegoenak egoitzako jarduera programa jarraitu zuen, betiko jarduerak alegia. Aldiz, talde esperimentalean zegoenak, egoitza bakoitzeko jarduera programa horri ariketa fisiko-konprograma bat gehitu zion. Minbizia zutenen kasuan, antzekoa izan da prozedura. Kontrol taldean zegoenak ohiko atentzio programa jarraitu zuen, eta, berriz, talde esperimentalean zegoenak, ohiko jarduera programaz gain, jarduera fisikoko programa bat ere jarraitu zuen».

Bi entseguen arteko ezberdintasun nagusia honakoa izan da: egoitzetan jarduera bertatik bertara gainbegiratu izan da. Ariketa fisikoko saioak taldeka eta bertan gidatuak izan dira. Eta minbizia zutenen kasuan, norberak etxean, kalean edo inguruan burutu ahal izateko jarduera fisikoko gomendioak jaso zituen, telefono bidez kontrolatuta.

Lehen kasuan Gipuzkoako hamar egoitzatako 112 pertso-

nak parte hartu zuten. Bigarren kasuan, minbizia zuten 300 pazienteek. Guztiak 70 urtetik gorakoak izan arren, egoera desberdinak bizi zituzten. «Alde batetik, minbizia zutenak beren etxean bizi ziren eta independenteak ziren. Ez zuten mendekotasunik. Aldiz, egoitzetako adinekoen kasuan mendekotasuna bazegoen, fisikoa edota kognitiboa», argitu du Arrietak.

ESKU HARTZEA ETA JARRAIPENA

Egoitzetan bizi diren adineko pertsonen kasuan, sei hilabetez esku hartze bat egin zuten. Hori bukatuta, beste sei hilabetez jarraipena egin zieten; hilkortasunean, erorketetan, gaitasun kognitiboan eta funtzionalean zer-nolako ondorioak izan ziren ikertzeko. Minbizia zuten adinekoen kasuan, esku hartzea urtebetekoa izan zen eta beste urtebetez jarraipena egin zitzaizen.

Ariketa fisikoko programak norberaren neurrikoak izan dira eta indarra, oreka eta erresistentzia izan dituzte ardatz nagusi. «Hauskortasuna zahartze prozesuari lotutako sindrome bat da eta oso ohikoa da egoitzetan bizi diren hirugarren adineko pertsone-

Lerroon goiko aldean, ezkerretara, Haritz Arrieta ikertzailea adineko batekin hizketan. Eskuinaldean, adineko pertsona bat ibilalditxo bat egitera irteteko prest. Hori ere gomendatzen dute adituek, norbere neurria eta erritmora, egunero ibilalditxo egitea.

GAUR8

tan. Sindrome hori dutenek arrisku askoz handiagoa dute erortzeko, ospitaleratzeko, autonomia galtzeko...». Hartara, Arrietak ariketa fisikoak hauskortasunean duen eragina aztertzen du, hainbat ikuspuntutatik: parametro funtzionalak eta odoleko markatzaileak erabilita eta baita parametro kognitiboak eta psikoafektiboak aztertuta ere. Era berean, ondorio kaltegarriak ere ikertu ditu. Minbizia zutenen kasuan, ariketa fisikoak egoera horretan gertatu ohi den gaitasun funtzionalaren galera ekiditeko balio ote duen aztertzen du.

EMAITZAK, POZGARRIAK

Emaitzak pozgarriak izan dira. «Egoitzetan bizi diren pertsonen kasuan, talde esperimenta-

«Askotan ez dakigu zer, nola eta zenbat egin. Biztanleria zaurgarrietan ariketa fisikoaren onurak aztertzen dituzten oso ikerketa gutxi daude. Aurrerapauso bat eman nahi izan dugu»

«Badirudi gaztea zaren bitartean garbi ikusten dela ariketa fisikoaren onura. Baina, adin batetik aurrera, hobe dela atsedeen hartzea. Uste dut ideia horri buelta ematen ari dela gizartea»

talekoek aldagai gehienak hobetu egin dituzte hiru eta sei hilabeteen. Aldiz, kontrol taldean zeudenen kasuan, gaitasun guztiak jaitسي egin dira. Funtzio kognitiboan ere hobekuntza txiki bat sumatu da. Afektibitateari dagokionez ere hobekuntza txikiak ikusi ditugu. Erorketei dagokionez, kontrol taldean ugaritu egin dira erorketak eta talde esperimentalean mantendu egin dira. Alegia, ariketa fisikoarekin ez dira areagotu erorketak. Aldiz, kontrol taldean asko ugaritu dira. Eta, azkenik, hilkortasun tasan ere eragin du. Talde esperimentalean heriotza bat izan genuen, eta, bestean, sei heriotza. Azkenik, sei hilabeteen hobetu zutena hurrengo sei hilabeteen galtzeko arriskua dagoela ikusi dugu. Alegia, era horretako programek jarraikortasuna eskatzen dute eraginkorrak izateko eta geldiu-nerik gabe garatu behar dira», laburbildu du ikertzaileak.

Beraz, garbi samar esan daiteke adinekoen egoitzetan daudenei ariketa fisikoak mesede egiten diela. «Geldiunerik gabeko eta denbora luzeko programak bultzatu beharko genituzke. Ikerketaren kasuan, ordubeteko bi saio egin genituen astero. Saio horiek pertsonalizatuak izan dira, hori izan da berritasuna. Ariketa bakoitza pertsona bakoitzaren gaitasunera egokitu dugu. Eta garbi dago emaitzak onak izateko beharrezkoa dela horrela izatea», esan du Arrietak. Adinekoen egoitzetan izaten dira jarduera fisikoak, soinketa saioak, baina badirudi ez direla nahikoak adinekoen egoera hobetzen laguntzeko.

«Ariketa fisikoko saio horiez gain, egoitzetan daudenek ibiltzeko gomendioa ere jaso zuten, pertsona bakoitzaren ara-



berakoa. Egunero ibilalditxoak egiten zituzten, bakoitzak bere neurrian, eta horrek ere hobetu du beren egoera», gehitu du Arrietak.

BIZITZA OHITURETAN ERAGINA

Bestetik, minbizia zuten adineko pertsonekin buruturiko entsegua telefono bidezkoa izan da. «Jarraipena telefonoz egin zen eta parte hartzaileei ariketa fisikoa egiteko gomendioak helarazten zitzaizkien. Gero, haiek beren esperientzia kontatzen ziguten».

Kasu horretan, emaitzak desberdin samarrak izan dira. «Urtebeteko epean ez dugu desberdintasun nabarmenik ikusi kontrol taldearen eta talde esperimentalaren artean. Baina, bi urteren buruan, kontrol taldearen baitan geroz eta okerrago zeuden eta gaitasun funtzionala geroz eta gehiago galtzen zuten. Aldiz, talde esperimentalean ikusi zen gehienek errekuaratzea lortu

zutela. Luzera begira, ariketa fisikoko programa horiek mesede ekarri zuten. Badirudi urtebetez jasotako gomendio horiek inpaktua izan zutela beren eguneroko ohituretan eta luzera begira mesede egin zutela».

Beraz, ikerketak garbi uzten du ariketa fisikoak mesede egiten diela egoera zaurgarrian dauden adineko pertsonen. «Hurrengo pausua kostu eraginkortasuna aztertzea da eta horretan ari gara. Pertsonalizatutako ariketa fisikoko programa bat martxan jartzea zenbat kostatzen den eta horri esker zenbat aurrezten den aztertu behar da. Osasun arazoei loturiko gastuetan murrizketa ematen da, erizain laguntzaileei eragiten dien inpaktua positiboa da bai fisikoki eta baita psikologikoki ere... Kostu oreka hori aztertzen ari gara», zehaztu du Arrietak.

Lakuako Gobernu eta foru aldundiek diruz lagundutako

Ariketa fisikoko programa pertsonalizatuei esker, erorketak murrizten dira, hauskortasuna gutxitu, gaitasun funtzionalak eta kognitiboak hobetu eta hilkortasun tasa jaitسي.
GAUR8

ikerketak proiektuak dira eta asmoa etorkizunean ariketa fisikoko programak egoitza bakoitzeko jardueren baitan txertatzea da. «Nik uste dut gizarte bezala mentalitatea aldatzen ari garela eta ariketa fisikoak adinekoengan duen eragin positiboaz jabetzen ari garela. Baina gako garrantzitsua da erakundeek horren aldeko apustu serioa egitea eta egoitzetan pertsonalizatutako programak bultzatzea. Eta hori oso garrantzitsua da, norberaren neurrikoak izatea».


Askotan kontrakoa pentsatu arren, pertsonalizatutako ariketa fisikoak adinekoak gutxiago erori dira eta hauskortasuna murriztu egin da

Orain, pertsonalizatutako ariketa fisikoko programekin zenbat gastatzen den eta zenbat aurrezten den aztertzen ari dira. Erakundeek horien aldeko apustua egitea espero dute



EXPRAI

iRRITZIA: {





Juan Carlos RUIZ | FOKU

IKUSMIRA

HAMAR, ZORTZI, SEI... BAKAR BAT ERE GEHIEGI DA

Hamar, 24 orduan. Urte osoan ere, jasanezina. Jaietan zein lanegunetan, jai gunean zein etxean, mendian zein kale-kantoi ilunean. Egia da zenbakiak fenomenoaren larria nabarmentzen duela, baina eraso ofizial bakarra ere gehiegi da. Jai gunean ibiltzen den jendearen erdia arriskuan dago. Herrian, munduan dagoen jendearen erdia, alegia. Donostiako Piratek arrazoi, jende horrek ez du bere segurtasuna bermatuta eraso matxistei dagokienez. Jendearen erdiaren segurtasuna da, baina %100en arazo larria, kalean islatzen denez. Kalean baina ez polizia-etxean: «atzokoa ikusita, edozeini salaketa aurkezteko gogoia joango litzaioke». Gasteizko jaietan Sipla Udaleko polizia sindikatuak bat egin zuen salaketa faltsuak eta tratu txarrak parekatu zituen pankartarekin. Polizia horiengana jo beharra al dago eraso bat jasandakoan salaketa jartzeko? Asteazkenean Donostiako Piratek bertan behera utzi zuten jaia, dagokienez baino ardura handiagoa erakutsita. Xabier Izaga

CAF, historiako orrialde beltzenak idazten

Koldo Sagasti

CAF enpresari esleitu diote Jerusalemeko tranbia eraikitzeke lanen kontratua. Israelgo administrazioa Jerusalem Ekialdeko kolonia ilegalak hirigunearekin lotu eta auzune palestinarrak baztertuko dituen azpiegitura egiteko asmotan dabil, eta Beasaingo faktoriari eta Shapir enpresa israeldarrari egokitu zaie apartheid-trenbidea eraikitzeke ardura.

Enpresa onuradunek ez dute irabazi esleitze-lehiaketa berezko merituengatik, baizik eta parte hartzeak ziren gainontzeak erretiratu egin direlako proiektutik. Kanadako Bombardier,

Australiako Macquarie, Alemaniako Siemens edo Frantziako Alstom enpresek, besteak beste, errefusatu egin dute nazioarteko legedia urratzen duen proiektu horretan parte hartzea, tokian tokiko BDZ (Israelen aurkako Boikot, Desinbertsioak eta Zigorrak) taldeek eragindako presioaren ondorioz. Eta lehiaketatik erretiratu badira, ez da giza eskubideen aldeko mugimenduaren argudiobideei men egin dietelako; baizik eta, nonbait, kalkulatu zutelako egitasmoan parte hartzeak euren irudi korporatiboari ekar diezaiokeen kaltea balizko etekinak baino handiagoa dela.

Otsailean CAFeko langile-batzordeak, aho batez, eskaera helarazi zion faktoriako zuzendaritzari proiektu ilegal horretatik erretira zedin, eta enpresaren buruzagitzaren esku utzi zuen korda luzea ekar zezakeen erabakia.

Hilabete batzuk geroago enpresa-buruek erakutsi dute gainontzeko nazioarteko enpresen zuhurtziaz jokatu baino nahiago izan dutela diruzalekeria lehenetsi eta gerra krimen baten partaide izan.

Nork bere tokia hautatu du lubakian, eta CAFek historiako orrialde beltzenetakoa bat idaztea aukeratu du. •

Baldarrak gara, hala nahi dugunean

Itzea Urkizu
Arsuaga

Hamaika ikusteko jaioak gara” guztiak berresten dituzte egun berriek, eta benetan horiek guztiak ikusteko jaio ginela pentsatzeko nahikoa arrazoi eskaintzen ditu Twitterreko jario gehiegizkoak; hori du, gizarteari iritzia ematea norbait izatea dela pentsarazteak. Azkenaldian, harrigarria zait denbora-lerroan gure hizkuntza-aren eredu estandarrak –euskara batuak– pizten duen ika-mika: ezezagutza baino gorroto handiagotik; gorrotoa baino mespretxu nabarmenagotik; edo, norbere zilborrari begira.

Ez, gurean ez da nobedade hizkuntza balizko tresna politikoen maletan sartzearena. Baina, tira, utz iezadazue asaldatzen, ustez euskararen osasun eta bizi-

rautearen alde ari diren zenbaiten ahotan, batua alboratzen duten adierazpen publikoak irakurtzen ditudanean. Baldarrak gara hala nahi dugunean, alajaina.

Ez dakit noiz izango garen kontziente, batua vs euskalkia dikotomiaren absurdoaz, edo eredu bakoitzaren testuinguruez. Ez dakit zenbateraino dugun gogoa, 2019an badela euskara batua ama-hizkuntza duen euskaldun mordoa. Eta, nazioartearekin hain konektatuta gauden honetan, ez dakit noiz altxatuko dugun begirada, munduko hizkuntza kultu guztiek eredu estandar bat –alegia, batu bat– darabiltela ikusteko.

Zalantza horien guztien artean, ordea, badut irudipen argi bat –bai, ni ere zurrupatu nau iritzia eman beharrak–: letra la-

rriz larria dela, komunikabide publiko nazionalen zenbait dialektok hartzen duten presentzia neurtua, nortasuna markatu nahian-edo; mendea atzera egin nahian. Korrika pasatzen denean euskararen normalizazioaren alde daudela erakutsiz, gero, etorkizuneko euskal hiztun-komunitate potentziala uhinen bestaldean dagoenean, askorentzat arrotz diren formula kolokialak baliatu, eta inkomunikazio egoerak sortzeko.

Baldarrak gara hala nahi dugunean, hala nahiko ez bagenu, arazorik gabe jantzi-ko baikenuke batuaren alkandora, gure euskalkiaren galtzekin batera, konbinazio perfektua osatuz. Irakurri, bestela, Miren Amurizaren “Basa”, eta norberak atera ditzala bere ondorioak. •



Beñat Gaztelumendi
Bertsolariak

Galernak

Ez dakit hondartzan etzan naizen edo hondartzak etzan nauen. Baina hementxe nago, eguzkipeko xigorgailuan. Toalla bat jarri dut

harearen eta nire arteko babesgarri, hondar alerik gorputzera itsatsi ez dakidan, badaezpada ere.

Urratu berria da goiza eta nire inguruan pilatzen ari da jendea. Hemen, harearen eta uraren arteko eremu mutu honetan, zalantzan nago nire buruarengandik inoiz baino gertuago edo urrunago ote nagoen. Ez baitakit zein den fikzioetan fikzioena: udan munduaren *pause* botoia saketzea edo udatik udarako hilabetetant azeleragailua zanpatzea. Egunkaria zabaldu eta albisteak irakurtzeari ekin diodan arren, olatuen joan-etorrian dabilta pentsamenduak ere, albistetik albistera jauzika.

Egunkariak ere beren gorputzik finduenak erakusten dizkiote abuztuko eguzkiari. Kapak kendu eta kendu aritzen dira, ia biluzik geratu arte. Eta albisteak ere halaxe etortzen dira askotan. Uztailetik hona, ia egunero ekarri digute eraso matxisten berri. Eta batzuetan, udari eman nahi izaten diogun bestelakotasun erabateko honetan, badirudi urtaro kontuak direla: festen eta gaueko ibileren albo-kalteak, normalak ez diren hilabete hauetan gertatzen diren gauza anormalak, urteko gainerako egunetatik kanpo zerbait. Testuingurua desagertu egiten da oporraldiek hustutako egunkari-orrietan, gertakaria gertakariaren gainean, testuingurutik, mundutik kanpo, Euskal Herrian hainbeste irakurtzen diren egunkarietako “*sucesos*” ataletan bezala.

Dena bestelako, ezohiko eta salbuespen moduan aurkeztua. “Indarkeria matxista” deitutako kontzeptu abstraktu, lanbro eta ukiezin horren eta egunkariak dakartzaten gertakarien artean loturarik ez balego bezala. Gertakari bakoitza bisturiarekin zabalitzen digute: nola izan zen, zenbat izan ziren, nolakoak ziren, kamerek zer jaso zuten eta lekuko izutuek zer esan zioten kazetariari. Eta ondoren gertaeraren ezohikotasuna azpimarratuko duen zerbaiti helduko zaio, ohikotik urrunduko duen hari-muturrari tira. Eta garrantzitsu beharko ez luketen datuak ezinbestekotzat aurkezten dira. Eta, ahal dela, erasotzaileak “besteak” badira hobe: izan daitezela arrazaz “besteak”, bizi-ereduz “besteak”, portaeraz “besteak”:

arabiarrek, okupak, kalean bizi direnak, gauez ibiltzen direnak, lanik ez dutenak, “euskaldun jatorrak” ez direnak, “besteak”. Eta “bestetasun” hori arakatzeari ekingo dio kazetariaren begi klinikoak, gupidarik gabe marraztuko du “bestea” bihurtzen duen ezaugarri hori eta azkenean “bestetasun” hori bihurtzen da erasotzailearen ezaugarri erabakigarri. Ez, esate baterako, gizon izatea. Ez baita beste gizonok bezalakoa, “bestea” baita.

Eta gure hondartzako etzanaldian, lasai hartzen dugu arnasa. Ez gara gu. Uda da, abuztuko iluntzeetako galernek egunkarietan pilatutako biolentziak baino gehiago aztoratzen gaituzten garaia. •



Gure hondartzako etzanaldian, lasai hartzen dugu arnasa. Ez gara gu.

Jagoba MANTEROLA | FOKU

{ koaderno } Nerea Ibarzabal Salegi

Inoren esku

The Great Hack” dokumentala ikusi dut aste honetan. Facebookek bizi izan zuen eskandalua kontatzen du; Cambridge Analytica enpresak Facebookeko milioika erabiltzaileen datuak eskuratu zituen app baten bitartez, eta hainbat kanpaina politikotarako erabili zituen, tartean Trumpi edo Brexitaren aldeko laguntzeko. Zuckerbergen sare sozialak ez zuen neurrik hartu bere erabiltzaileen datuak babesteko, jada berandu izan arte.

Oraindik beraien bozari buruzko zalantzak zituzten herritarrak detektatzen zituzten Cambridgekoek, eta hauek konbentzitzeko iragarki neurtu eta zehatzak helarazten omen zizkieten hauteskunde garaian zehar. Garbi denez, arrakasta izan zuten kanpainen.

Urtebete pasa da hau guztia argitara atera zenetik, eta Facebookek kritika gogorrak eta boikoterako deiak jaso dituen arren, datuek diote hazi egin dela ordutik. Erabiltzaileko zazpi dolar inguruko irabaziak eskuratzen ditu Facebookek, eta urtez urte igotzen doa. Alegia, sare sozialen garaiak ez daukala amaierarik eta, eskandaluak eskandalu, aurkitu nahi gaituen orok hortxe izango gaituela eskuragarri, gure izen-abizen, kokaleku, argazki, iruzkin eta mezu pribatuekin, baita gure profila itxiko bagenu ere. Ez egotea zailagoa delako egotea baino, dagoeneko. Bestela, irakurri ezazue Jokin Bergarak “Berria”-n argitaratu zuen “Algoritmoen aulki jo-koa” artikulua, are gehiago beldurtu nahi baduzue.

Pentsa zenbat informazio, auskalo noren eskutan, auskalo zelan iritsiko zaiguna bueltan. Pragarako hegaldiak begiratu Skyscannerren eta bat-batean iragarkia Facebooken, “Pragan lotarako leku bila?”. Eta horrelako milaka adibide konspiratzaile, zure asmo, pentsamendu eta profila ezin zehaztuago daukatela erakusten dutenak, zuk zeure burua berezitat izan arren, merkatua-arentzat laukitxo bat zarelako “18-35, bizkaitarra, ezkertiarra, emakumea” dioena. Aurreikusgarria zara, eta gainera erakusleio bat zabaldu duzu beraientzat.

Cambridgen eskandalua publiko egin da, batek daki zergatik, baina gauza batzuk ez dira inoiz jakingo, eta enpresa pribatuak ez direnean, beste botereren bat izango da ahaleginik barik barrutik irakurriko zaitue-na. Eta euskaraz idaztea ere ez da izango gure territorio librea hemen, *big data*-ren munduan.

Gogoan dut lehenengo aldiz noiz sentitu nuen nire datuen gaineko kontrolik eza. Gure belaunaldia eta pixka bat zaharxeagoak izan ginen geroko sare sozial arrakastatsuen hasierako diseinuen akuriak. Fotologetik Tuentirako trantsizio horretan –enpresek ez daukatelako zertan elkarri daturik erosi, norbera doa batetik bestera zabaltzen behar sozialek aginduta–, pixkanaka auto-lotsa geureganatzen hasi ginen Fotolog arkaikoan elkarbanatutako argazki eta iruzkin infantilengatik, eta une batetik aurrera iragan hori ezabatze beharra sentitu genuen. Ba, zer diren gauzak, gure kontuak ezabatu arren, eta Fotolog bera ere

Gure praka-kanpana, flekillo eta maitasunezko aitortzak hor nonbait egongo dira gordeta, gutxien espero dugunean norbaiten interesei erantzun diezaieten

duela bi urte itxi zuten arren, oraindik Googlen aspaldiko izen horiek jarri eta irakur daitezke gure iruzkinak.

Eta orain, gure amesgaiztoa edo nostalgikoen une goren: Fotolog itzuli egin da, eta 2016an oraindik aktibo zeuden kontuak berreskuratzeko aukera ere ematen du hiru euroren truke. Hau da, ustez betirako itxi zen zerbaitek berdin-berdin dirauela Interneteko lainoren batean; berdintsu egingo zuten beste sare askok, ziur naiz, gure praka-kanpana, flekillo eta maitasunezko aitortzak hor nonbait egongo dira gordeta, gutxien espero dugunean norbaiten interesei erantzun diezaieten. Gure ziber-zaborra baliotsuegia baita babes-kopiarik egin barik suntsitzeko. •

Xabi Oterok bi-
zitza osoa ar-
gazkigintzan
eta liburuak
argitaratzen
jardun du. Be-
re lanak beste zenbait dizipli-
nara eraman zuen, euskal kul-
turaren azterketa ipar. Gaur
egun Jauzarrea euskal kultura-
ren azterketa eta zabalkunde-
rako funtsaren zuzendaria da.
Luze hitz egin digu irabazi as-
morik gabeko erakunde hor-
ren lanaz eta hark antolatuta
datorren urriaren 18an Herna-
niko Orona Fundazioa audito-
riumean izango den Atlantiar
kongresuaz.

Zergatik Jauzarrea?

Jauzarrea gure etxearen izena
da, Jauregizarrea alegia. Gure
amatxi baztandarra zen, eta
Arraiozko etxe hori duela 30
urte erosi genuen emazteak eta
biok, erortzeko zorian zegoela.
Dorretxea da, egurrezkoa. Or-
duan ez genuen ez pisurik ez
ezer, eta nahaspila honetara
sartu ginen.

Zuen egoitza ere bada.

Bai, guztiaren egoitza da, Jauza-
rrearena, argitaletxearena
[Txoria Errekan], eta kanpotik
datorren jende guztia, kongre-
suetara ekartzen ditugun adi-
tuak-eta hemen hartzen ditu-

gu. Etxe hau katalizatzailea
izan da, gu batzeko, eta hau
guztia sortzen den leku fisikoa;
gainera, garrantzitsua iruditu
zitzaigun hemen, Nafarroan
izatea.

Nola sortu zen funtsa?

Berrogeitik gora urtean ehunka
autorerekiko harremana izan
dut neure lana zela-eta; horrek
bideratu nau orain egiten ari
garena bultzatzera. Oso bilaka-
era logikoa, naturala izan da,
euskal kulturaren, historiaurre-
aren, antropologiaren eta aba-
rren arloko hainbeste jendere-
kin harremana izanda, buruan
ideia bat lantzen hasi nintzen:


*«Oso zaila da
zehaztea noiz
sortzen den euskal
identitatea, baina
badakigu modu
inkontzientean
eraikitzen joan dela
milaka urtean
barrena. Orain
dinamika
politikoagoa dago,
baina lehen
biziraupenak berak
markatzen zuen»*

nola konta litekeen ondo gure
historia. Horretan jardun dugu
gure argitaletxearentzat edo es-
katu diguten instituzioentzat.
Egin ditugun liburuak euskal
ondarearen ingurukoak dira,
eta nik beti ikusi dut gabezia
bat, jendearengana iristeko
moduko azalpen erraz batena,
gure historiaren kronologia
modu homogeenok kontatua
faltan botatzen dut. Ezagutu
dudan guztia hainbat eremuta-
tik edo diziplinatetik ezagutu
dut: arkitektura, antropologia,
arkeologia, paleontologiatik...
Beraz, kontua da nola batzen
dugun dena jendeari ahalik on-
doen azaltzeko.

Aspaldiko ideia duzue, ezta?

1997an “Euskal Herria. Esen-
tziak” liburua egin genuen, he-
rri honetan aldatzen ez dena,
tradizionala bildu genuen. Li-
buru hori ez da zaharkitu. Ber-
tan ez da autoen edo jantzi mo-
dernoaren argazkirik. Artisauak,
dantza tradizionalak, itsason-
tziak dira denak. Hori ikusita,
pentsatu genuen gure liburue-
tan beti historiaurrera iristen
ginenean huts handi bat topa-
tzen genuela. Topiko asko dau-
de, eginda dagoena behin eta
berriro kopiatzen dugu, baina
dioguna zuzena den ziur jakin
gabe.

2004an, “Jose Rota. Aezkoa”
ibarraren gaineko liburua
egiten ari ginela, ibarreko fami-
lia asko ezagutu genituen eta
gauza bera pentsatu genuen,
zer edo zer egin beharra zego-
ela. 2006an, arkeologo batzue-
kin lanean ari nintzen ni Praile-
aitzen, eta, instituzioek oso
gaizki tratatutako kontua ze-
nez, hura babesteko kanpainari
ekin genion. Han berretsi nuen
politikaren eremu guztietan
kulturarekiko sentsibiltate fal-
ta hori. Hura aberaste prozesua
izan zen guretzat.



Jagoba MANTEROLA | FOKU

«Argi ikusi nuen egokiena kanpoko jendeak eurek euskaldunen gainean egindako lanak kontatzea zela, eta ondoren guk liburu batean biltzea»

Ikertzaileak kanpokoak dira.

Esandako autore ugari horiek, kulturaren, batez ere ondarearen eremuko jende hori biltzeko prozesuan, argi ikusi nuen egokiena kanpoko jendea ekartzela, eurek euskaldunen gainean egindako lanak kontatzea ziezazkiguten eta ondoren guk liburu batean biltzea. Oso jende garrantzitsua da. Oppenheimer, Vennemann, Dennis Stanford gonbidatzen baditugu, eurek emango digute euren lanaren berri, ez Xabi Oterok, ez Beatriz Etxeberriak [Oteroren emaztea], eurek baizik.

Momentu honetan mundu osoko 207 ikertzaile ditugu, eta haien lanen sintesia agertu nahi dugu liburuan, jendeak eskuan eduki ahal izateko moduan. Egin ditugun lau kongresuetara etorri den jendea badago, baina jende hori ez da azken urteetan antolatu ditugun 130 hitzaldietara etorri. Bestetik, mundu osoko kolaboratzaile horietako asko ezin izango dira urriaren 18an etorri, horregatik nahi ditugu denak argitalpen batean elkartu, gure giza taldearen, euskaldunen kronologia egin, Afrikako hasieratik gaur arte.

Urrian egingo duzuen kongresuaren ondoren argitaratuko duzue?

Bai. Aurten kalean beharko luke. Espero gabeko arazo bat izan dugu, eskuan tendinitisa daukat eta maketazioa-eta neuk egiten dudanez, orain horri dagokionez egonean gaude eta larri nabil, gehiegi atzeratuko den beldur; nolahi ere, aurten bertan argitaratu nahi dugu, hasitakoaren zirkulu hori ixteko eta oinarri bat izateko. Izenburua nahi baduzu, probisional bada ere, “Euskal Zibilizazioa. Euskaldunen 45.000 urte”. Liburu hau eta Jauzarrean

egiten dugun guztia gure giza taldearen historiaren gainekoa da, Afrikatik Pertsiarantz eta Mesopotamian eta Anatolian barrena, Europatik honaino. Hori da gure interesa, ea gure *Homo sapiens* familiaren zuhaitz genealogikoa berreraiki ahal dugun, jendarteari azaltzeko, euskal identitatearekin azaldu ere. Oso zaila da zehaztea noiz sortzen den euskal identitatea, baina badakigu modu inkontzientean eraikitzen joan dela milaka urtean barrena. Orain dinamika politikoagoa dago, baina lehen biziraupenak berak markatzen zuen.

Jauzarreak identitatea aniztasunaren aberastasuna delad dio. Zenbait arlo ideologikotatik, ordea, bizikidetzaren eta demokraziaren etsaitzat jotzen dute.

Bai, baina horiek ez diote beren identitateari uko egiten. Guk beti esan dugu geure iragana ezagutzen badugu, hobeto ezagutuko dugula geure oraina; egin ditugun hutsen berri izanda, akatsok berriro egitea saihestu ahal izango baitugu. Jakin nahi dugu eta, diasporako jendea bere deitura nondik datorren jakitera datorren era berean, utz diezagutela jakin-mina asetzen gutxienez; ez baitigute hori egiten ere uzten. Extremaduran baten bati hango azterketa genetikoa egitea bururatuko balitzaio, gauza bikaina izango litzateke; euskaldunei bururatzeko bazaie, «badabiltza, betikoak...». Baina guk ez dugu inolako konplexurik, eta uste dugu polita dela herritar libre gisa egitea. Kanadan, esate baterako, oso polita zen indiar komunitateetan egiten zizkiguten ekitaldietan, edo han egin genuen kongresuaren lehen egunean, han zirela agintariak, Uniber-

tsitateko errektorea, Kanadako Osasun ministroa izandakoa, Eskozia Berriko Kultura ministroa, gure delegazioarekin zuden guztiak, eta han ziren gure hogeitaka hizlariak. Guk ikurrina bat eman genien eta eurek guri Mi'kmaq-en bandera. Gu euskal herritar gisa joaten gara hara, hemengoak, Argentinakoak, Mexikokoak, Ameriketako Estatu Batuetakoak edo Kanadakoak; guk geuk ordaintzen dugu eta ez diogu inori konturik eman behar. Askatasun hori da gure abantaila, eta Europako indigenak garela aldarrikatzen dugu.

207 ikertzaile horiek Jauzarrearen kolaboratzaile finkoak dira?

Bai. 64 instituziotakoak dira, unibertsitate edo ikerketa elkartetakoak, eta 30 herrialdetakoak. Iaz, Kanadako kongresua egin genuen, guk antolatu bainan Cape Bretongo Unibertsitateak ordaindua (Eskozia Berria, Kanada), eta deitu genituen guztiak joan ziren, Ingalaterratik, Alemaniatik, Ameriketako Estatu Batuetatik, Danimarkatik... Halako dinamika sortu dugu, eta horregatik jarraitzen dugu, hasi ginenean pentsatu baikenuen lau kongresu egin eta aktak argitaratuta gure eginkizuna bukatuta zela. Kontua da jende horrek esan zigun guztia entzun eta gero, eta esan ditzaketen beste asko daudela jakinda, pena ematen zigula. Kanpokoan erantzuna ikusita... baita barrukoena ere, zeren hasieran ez genuen inolako sostengurik, eta aurrera egiteko 400 laguneko kuota bat jarri genuen lau kongresuok eta hitzaldi piloak egiteko. Urtero batez beste 440 lagun biltzen genituen Ficovan, eta hura guretzat adore-txutea izan zen. Herri honetan interes handia dago.

XABI OTERO

JAUZARREAKO ZUZENDARIA

Nafar argazkilari ezagunak, besteak beste,

Jauzarreak antolatutako Atlantiar kongresuaren eta bertan aurkeztuko dituzten proiektuen berri eman digu, betiere euskal kultura aztertu eta

munduan barrena ezagutarazteko asmoz

Xabier Izaga Gonzalez

Ez duzue bestelako laguntzarik izan?

Susana Soto San Telmo Museo-ako zuzendaria eta Karmele Barandiaran etorri zitzaizkigun euren laguntza eskaintzera. Sekulako laguntza: hiru urtean 26 hitzaldi antolatu genituen haiekin. Guk hizlariak eta publikoa eramán genituen, eta aretoa eta gainerako guztia euren jarri zuten. Horri esker eutsi genien gure jarraitzaile askorekiko harremanei. Ondoren, Kanadan genituen kontaktuen bidez ikusi genuen hango Mi'kmaq indiarrekin kongresu bat egiteak merezi zuela. Cape Bretongo Unibertsitatean Unama'ki College dago, ikasketa indigenen fakultatea nolabait. Unibertsitatean hartu gintuzten eta, hemen egiten dugun bezala, astebete eman genuen taldeak eta hizlariak lanean. Han gastatu zuten dirua hemen ez dute gurekin 15 urtean gastatu. Horregatik konfiantza handiagoa izan dugu bazkideengan, bizirauteko baino ematen ez badu ere.

Zenbait proiektu aurkeztuko dituzue kongresuan.

Bai. Horietako bat "Soluzio Solutrensea" delakoaren hipotesia erakusten laguntzea da. Dennis Stanforden eta Bruce Bradleyren hipotesi horren arabera, duela 20.000 urtetik gora hemendik Ameriketara joaten hasi ziren, itsasontziz, izotzaren ertzetik, egun ere inuitek Groenlandian egiten duten bezala. 4.500 urtean izan zen Bordeletik gaurko Virginiarainoko izotzezko zubi hori. Han aurkitutako zenbait elementuk hala adierazten dute. Eta hori ez da duela 15.000 urte Siberiatik joandako migrazioa.

Kanadako nazio indiarrekin harremanetan jartzeko asmoarekin hasi zen proiektua, eta

genetika azterketa bat egitea lortu dugu. Ingalaterrako Huddersfieldeko Unibertsitateak garatu du. Populatzeko harekiko harremana izan zezaketen lehen nazioetako lagin batzuen azterketa egin dute, ea hemengoekin parekagarriak diren.

Aurten euskal genetikaren gaineko beste ikerketa bat egingo da, inoizko zabalena. Euskal Herri osoko 550 odol lagin aztertuko dituzte Huddersfieldeko Unibertsitateko ikertzaileek. Giza eboluzioan eta migrazioetan adituak dira, eta euren eskaini ziguten azterketa egitea. Kuota bidez ordainduko dugu;

dirutza da. Gauza asko zehaztuko dituzte, duela 40.000tik gora urteko markatzaileak bilatuko baitituzte, eta erantzun asko emango dizkigute.


Beste proiekturik?

Bai; esate baterako, Txinako Txengduko unibertsitate batek abiatu duena. Munduko hamabi kulturaren gaineko kongresu batean eta erakusketa batean parte hartzera gonbidatu gaituzte, euskal kultura hamabi horietako bat baita, eta munduan barrena erakutsiko dute.

Eta beste bat hasita daukagu, Unama'ki-Louisbourg, Parks

Canadarekin egiten ari garena. Parks Canada herrialde hartako parke naturalen eta ondare historikoaren kudeaketaz arduratzen den estamentua da. Bada Louisbourg izeneko gotorleku bat, 1744. urtean zen antzera birsortua. Hango bigarren hizkuntza euskara zen. Bi neska joan ziren hara, euskara, frantsesa eta ingelesa ondo dakitenak, euskal dantzak eta kulturaz dakitenak; XVIII. mendeko jantzi eder batzuk egin genituen, txistu bat eta danbolin bat, mende bereko modeloak kopiatuta. Ekainean hasi ziren eta harrera ezin ho-

«Beti esan dugu geure iragana ezagutzen badugu, hobeto ezagutuko dugula geure oraina; egin ditugun hutsen berri izanda, akatsok berriro egitea saihestu ahal izango baitugu»



Jagoba MANTEROLA | FOKU

ATLANTIAR KONGRESUA, EUSKAL KULTURAZ IKASTEKO ETA MUNDUAN ERAKUSTEKO

Lehen herriei eta euskaldunei buruzko ikerketa lanak izango dira urriaren 18an Hernaniko Orona Fundazioa auditoriumean Atlantiar Kongresuak jorratuko dituen gai nagusiak. 300 lagunentzako lekua dago aretoan; beraz, izena emateko epea denak betetzen direnean itxiko da. Hamabi orduan beren arloetan aitzindari diren hainbat hizlari entzuteko aukera izango da, 60 euroren truke; <https://jauzarrea.com> helbidean, Kongresuaren kartelaren azpian, erraz asko eman daiteke izena.

Kongresuaren eta oro har Jauzarrearen helburuaz, hauxe dio Xabi Oterok: «Barandiaranek-eta esaten zigutena, hortik zihoan dena, oso intuizio zuzena zen. Onena da orain hori zientifikoki berresteko aukera dagoela, eta horixe egiten ahalegintzen ari gara».

Kongresurako daukaten baliotsuena, dioenez, lanak lehen eskukoak izatea dela dio, ikertzaileek berek egindako lanak. «Terapia kolektibo moduko bat da». Gehienak ez dira gazteak, eta hainbeste urtez zenbait gauza modu batera azaldu ondoren, orain, baliabide eta datu berriak daudela, uste dute gauzak bestela kontatu behar direla, zuzendu beharra dagoela. Horregatik, Oterok aurten argitaratuko duten liburua hasieran, kontatzen dutena hipotesi bat dela dio, «egunero aurkikuntzaren bat baitago, gauzak etengabe zuzendu edo birplanteatzera behartzen zaituena». Jendeari gertatu denaren orientazio bat ematea da euren ideia.

Kongresua nazioarteko ikertzaile horien bultzada da, nolabait Jauzarrearen lanaren aitortza, eurek ere elkarte horren beharra dutela diote-eta. Hainbat diziplinako ikertzaileak aste batean elkartzea beren lanak azkartzeko oso onuragarria dela diote. Kongresu baten ondoren, haietako batek Oterori esan zionez, astebete hiru urtean baino lan gehiago egin zuten denak bilduta. Ba omen dira Ontarion Kanadako arkeologia enpresarik handiena duten senar-emazte batzuk, Kongresuari laguntzeko 5.000 dolar bidali dituztenak. «Denek nahi dute Jauzarreak jarrai dezan. Hori kanpoan,



Ezkerretik hasita, Marta Vazquez, Eddie Kennedy (Parks Canada), Xabi Otero eta Mirari Loyarte, Hernanin. Jon URBE | FOKU



Ametz Aranguren eta Mirari Loyarte, Louisbourgeko bisitarien aurrean. Xabi OTERO

eta hemen inork ez digu jaramonik egiten», dio Oterok.

Baina Jauzarrearen helburua euskal kulturaren berri zabaltzea ere bada. Asmo hori dauka Unama'ki-Louisbourg proiektuak. «Nik 1983an ezagutu nuen

Louisbourg, ikertzaile joan nintzenean. Ondoren joandakoetan euskal arrastorik islatuta ez zela ikustean, 1997an proposatu genien hara euskal ikasleak bidaltzea, han euskara entzun zedin eta harremanak sortzeko; hemen ere

proposatu genuen, baina inork ez zigun jaramonik egin», dio Oterok. 2015ean, ordea, Parks Canadako arduradunetako batek, Lester Marchand Goynetche hango euskaldunak, Oteroren proposamena ondo ulertu zuen, berak sartu baitzuen gotorleku historiko hartan Mi'kmaq indiarren presentzia. 2018an, Kanadako Cape Breton Unibertsitatean Jauzarreak egin zuen kongresuaren ondoren, Eddie Kennedy Parks Canadako orduko zuzendaria joan zitzaion Oterori, kongresuan zegoen maila ikusita harrituta geratu zela esatera, eta proiektua abiatu beharra zegoela.

Dagoeneko hiru euskal ikasle daude Louisbourgen, hamar astez euskal kultura eta hizkuntza erakusteko. Haietako bik, Amets Aranguren eta Mirari Loyartek Parks Canadako ekipoa lan egiten dute, arrantzaile etxe bateko alaben papera antzetzten eta euskal kultura erakusten, eta hirugarrena, Marta Vazquez, antropologia lan bat egiten ari da. Proiektuaren gastu gehienak Jauzarreak ordaintzen ditu, eta Parks Canadaren eta Cape Breton Unibertsitatearen laguntza handia du.



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Haurtzaroko sexualitatea

Umeek sexualitaterik ez dutela hedatuta dagoen sineste faltsua da. Are gehiago, desgaitasun egoeran dauden neska-mutilen kasuan. Sexugabeko aingeruak direla kontsideratzen delako. Haurrak, ordea, sexudunak dira, ezinezkoa baita ez izatea. Labur

esanda, pertsonalitatea eraikitzen duten bezala, sexualitatea ere. Hortaz, umeak ez dira asexualak; sexu identitatea, sexu orientazioa eta erotika dute. Erotika, jokabide sexuala da, sexualitatea adierazteko modua, hain zuzen. Hala nola, desirak, fantasiak, erakarpina, maitasun erotikoa eta maitemintzea kudeatzeko eta jakinarazteko era. Baina, portaera koitala ez dutenez, sexualitaterik ez dutela ondorioztatzen da. Zoritzarrez, helduekin berdina gertatu daiteke, adibidez, pertsona zaharrekin.

Sexualitatea, jaiotzetik hil arte dugunez, txikitatik eta etengabe aukeratu baino deskubritzen goazen giza dimentsioa da. Beraz, umeak garenetik, biografia sexuala eraikitzen goaz. Baina, umeen eta helduen sexualitatea eta erotika diferenteak dira. Umeen erotika, auto-erotikoa da, hau da, norberarengan zentratzen da. Beraz, ez dute erakarpina sentitzen, ezta besteekin sexu harremanak edukitzeko interesik ere. Gainera, ez dute besteengan eszitazioa edo desira pizteko asmorik. Helburu bakarra, gozamen propioa asebetetzea da. Horrekin batera, sexu harremanak soilik norbere buruarekin edukitzen dituzte. Hitz batez, portaera sexuala autoerreferentziala da. Eta besteekin gorputza esploratzen dutenean, adibidez, medikuetara jolasten, bultzada bakarra kuriositatea eta aburua jolastea dira. Azken finean, bestea pertsona ez-

berdina denez, ezagutu beharra dago. Hala ere, haurren erotika, helduen betaurrekoetatik begiratzen eta ulertzen dugu.

Horrekin batera, pertsonak animalia sinbolikoak gara. Eta sinbolizatzeko gaitasuna, pubertarotik, abstrakzio mailarekin batera garatzen dugu. Beraz, fantasia eta desira erotikoa, bestearekiko erakarpina eta funtsean, sexu orientazioa, pubertaroan deskubritzen eta definitzen hasten da. Horregatik, pubertarora iritsi arte, umeek, jolasteko seduzitzen dute, ez ligatzeko. Hala ere, imitazioaren ondorioz, helduak bezala, erlazioetara jolasten dute. Betiere, azpimarratuz, pertsona bakoitzak bere erritmo propioa duela eta kasu guztietan ez dela sexu garapena berdina ematen.

Helduen erotika, berriz, auto-erotikoa eta hetero-erotikoa da. Izan ere, besteekiko interes erotikoa dago eta beharriazko norbanakoan eta erlazioan gogobetetzen dira. Erakarpina eta desira sentitzen dira, baita bestearentzat erakargarria eta desiragarria suertatzeko nahia ere. Besteekin sexu harremanak edukitzeko gogo agertzen da eta besteengan eszitazioa eta desira pizteko asmoa dago. Bestearen gozamina jokoan sartzen da, eta, helburua, elkarrekin gozatzea eta beharrian emozionalak betetzea ere bada. Bukatzeko, bultzada, azalaren egarria asetzea eta sentitzen duguna komunikatzea da; erlazioan, alegia. Laburtuz, haurtzaroko sexualitatea existitzen dela aitortu arte, helduena proiektatzen, erreproduzitzen eta helduena bezala epaitzen jarraituko dugu. Nahiz eta umeen bizipenak eta sentipenak bestelakoak izan. Hots, haurren sexualitatea den bezala begiztatzeko eta onartzeko, betaurrekoz aldatzea funtsezkoa da. •



Umeen eta helduen sexualitatea eta erotika desberdinak dira.

GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ARCHIVES IKERZALEAK (ZUBEROA)

IPAR EUSKAL HERRIAREN LIBERAZIOA, 1944AN

Alemaniko Armadak Ipar Euskal Herria okupatu zuen 1940tik 1944ra arte. Aurten bete da liberazioaren 75. urteurrena. Zenbait iturriren arabera, nazien okupazioan Ipar Euskal Herrian 200 fusilatu inguru eta 1.500 deportatutik gora izan ziren. Angelu eta Biarritzen bonbardaketa okupazioko gertakari esanguratsuenetakoa izan zen. 1944ko martxoaren 27an, Ameriketako Estatu Batuetako 50 bat hegazkinek 125 tona bonba jaurti eta ia 400 eraikin birrindu zituzten. 115 zibiletik gora hil ziren eta ia 250 zauritu ere izan ziren. Haien jomuga Biarritzko aerodromoa eta alemanen base bat ziren. Aliatuak 1944ko ekinaren 6an Normandian eta abuztuaren 15ean Proventzan lehorreratu ostean, Alemaniako tropak atzera egiten hasi ziren. Abuztu hartan heldu zen Ipar Euskal Herriaren liberazioa, hilak 24an erresistentziako zenbait talde Baionara sartzean. Artikulua ilustratzen duen irudian Nafarroa Behereko eta Zuberoako erresistentziako kideen talde bat ageri da, 1944ko abuztuaren 21ean Donibane Garazira sartzen.

